

**Donostia Turismoaren** bulego berriak **Donostiako Udaletxean** irekiko ditu ateak, Boulevardera ematen duen aldameneko sarreran, **bisitariei** eta baita **herritarrei** ere arreta emateko.

Sartzeko, eskailera berriak edo igogailua erabili ahalko dira. Horien aurrean dago Udalinfo, herritarrei arreta ematen dien bulegoa, eta, alde bietara, Turismo Bulego berrirako sarrerak. Espazio horren diseinuaren helburua bisitari zein donostiarrei **hiriari eta inguruari buruzko informazioa** ematea da, eta baita urtean zehar eskaintzen diren **jarduerei, proposamenei eta esperientziei** buruzkoa ere.

